



JUAN MANUEL RUIZ GASTAÑAREsek, Villabonako Udaleko (Gipuzkoa) Idazkari naizen honek

EGIAZTATZEN DUT :

Villabonako Udalbatzak, 2014ko otsailaren 5ean egin zuen osoko bilkuran, hitzez hitz horrela dioen erabakia hartu zuela besteak beste :

EA-Alternatiba (Bildu), EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) udal taldeek emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsan aurkeztu duten mozioaz deliberatu da. Horrela dio hitzez hitz:

Emakumeen autonomiaren eta erabakitze eskubidearen defentsan

Estatu espainolean PP buru den Ministroen Kontseiluak "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" Lege Organikoaren aurreproiektua onartu berri du, egungo osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko 2/2010 LO aldatuz. Aldaketa horrek emakumeen autonomiaren kontra egiten du bete-betean edo, bestela esanda, oinarritzko giza eskubide gisa onartutako eskubide sexual eta erreproduktiboaren aurka. Hamarkadatarako borrokaren bidez lortutako eskubidea zartada batez ezabatu nahi dute: emakumeek beraien bizitza sexual eta erreproduktiboaren inguruan erabakitze eskubidea izatea, alegia, inolako tutelarik eta jarraipenik gabe.

Egin asmo duten kontrarreformak emakumeen autonomia urratu, emakumeen heldutasuna, erabakitze gaitasuna eta ardurak ukatu egiten ditu, abortatu ahal izateko beste batzuekiko menpekotasuna ezarritik. Hala, emakumeon gorputzak Estatuak eta medikuntzak interbenitutako erreproduktzio hutsera murriztu ditu. Finean, lege egitasmo honek emakumeak gutxiesten ditu; haien borondatea eta haien bizitzarekiko kontrola haien eskuetatik kendu eta Estatuaren tutelapean ezarri.

Lege honek ez du hogeita hamar urteko atzerapen bat besterik suposatuko, eta zalantzan jarriko ditu sexu eta erreproduktzio eskubideen eta emakumeen askatasunaren alorrean nazioartean lortutako konpromisoak. Lege honetik gaitzespenak sostengu zabala izan du jendartearen ere, non eragile sozial, profesional eta feministak batu diren deiar horretara.

Esanguratsua da, baita ere, kontrarreformarekin tematzen diren bitartean, prebentzioa lantzeari uko egiten diotela, haur eta gazteen hezkuntza afektibo-sexuala garatzeko baliabideak gero eta urriagoak baitira.

Lege Aurreproiektu honek suposatu duen arbuio orokorraren aurrean, Villabonako Udalak honakoa adierazi nahi du:

1. Villabonako Udalak "Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako" legearen aurreproiektua gaitzetsi eta bere tramitazioa bertan behera uztea eskatzen du.
2. Honako pleno akordioa Eusko Jaurlaritzari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardoni helaraziko zaie.
3. Udal honek emakumeen autonomiarekiko eta, zehazki, ugalketarako autonomiarekiko duten eskubidearekiko konpromisoa berresten du. Haurdunaldia eteteko erabakiak emakumeen borondatea izan behar du ardatz eta baldintza nagusi.
4. Udal honek, Haurdunaldiaren Borondatezko Eteteak osasun sistema publikoaren baitan egitearen aldeko hautua egiten du, pertsonal sanitarioaren kontzientzia objezioa arautuz eta aipatutako zentro publikoetan emakumeek Haurdunaldiaren Borondatezko Eteterako duten eskubidea gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren talde profesionalak daudela bermatuz.
5. Erreforma honi erantzun bateratu bat emateko mugimendu feminista eta emakumeen mugimenduak egindako lan itzelari errekonozimendua egiten dio, eta Udal honek bat egiten du eskubide hau babesteko mobilizazioekin.
6. Herriarrei dei egiten diegu emakumeen autonomiaren alde eta, zehazki, oinarritzko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako gobernuaren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten.

Villabonan, 2014ko urtarrilean

Bildu

PSE-EE

EAJ-PNV

Proposamena bozkatu delarik, aho batez onartu da. Era berean, M^a Luisa Arijak horrela eskatuta, hartutako erabakia komunikabideetara bidaltzea erabaki da.

Horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioak izan ditzan, egiaztagiri hau izenpetzen dut Villabonan, bi mila eta hamalauko otsailaren hamabian.-

O.E.
ALKATEAK,

Izpta.: Galder Azkue Eizmendi



IDAZKARIAK,

Izpta.: Juan Manuel Ruiz Gastañares



JUAN MANUEL RUIZ GASTAÑARES, Secretario del Ayuntamiento de Villabona (Gipuzkoa)

CERTIFICO :

Que el Ayuntamiento de Villabona, en sesión plenaria celebrada el día 5 de febrero de 2014, adoptó entre otros el siguiente acuerdo que transcrito literalmente dice:

Se delibera acerca de la moción presentada por los grupos municipales EA-Alternatiba (Bildu), EAJ-PNV y PSE-EE (PSOE) en defensa de la autonomía de la mujer y el derecho a decidir, que dice textualmente:

En defensa de la autonomía de la mujer y el derecho a decidir

El Consejo de Ministros del PP ha puesto a tramite el anteproyecto de ley orgánica para la protección de los derechos de la mujer embarazada y el concebido, cambiando la LO actual de 2/2010 sobre la interrupción voluntaria y salud sexual y reproductiva. Este cambio va en contra de la autonomía de la mujer, o dicho de otro modo, va en contra del derecho básico sexual y reproductivo. Quieren eliminar en un abrir y cerrar de ojos el derecho obtenido tras décadas de trabajo: que las mujeres tengan derecho a decidir sobre su vida sexual y reproductiva, sin ningún tipo de tutela ni seguimiento.

La contrarreforma que tienen intención de llevar a cabo, quiebra la autonomía de la mujer, su madurez, niega su derecho y deber de decidir, imponiendo su subordinación hacia otros. Así, reducen el cuerpo de la mujer a la simple reproducción intervenida por el Estado y la medicina. A fin de cuentas, esta ley menosprecia a las mujeres, arrebatándoles su voluntad y el control sobre su vida y poniéndola bajo la tutela del Estado.

Esta ley supondrá un retroceso de treinta años, y pondrá en duda los compromisos internacionales adquiridos sobre los derechos sexuales y reproductivos de la mujer, y su libertad. El descontento hacia esta ley también a tenido su reflejo en la sociedad, donde las asociaciones sociales, profesionales y feministas se han unido a este rechazo.

Es significativo, asimismo, que mientras se obcecan con la contrarreforma, renuncian a trabajar en la prevención, puesto que los recursos para desarrollar una educación afectivo-sexual entre los niños y los jóvenes son cada vez más escasos.

Teniendo en cuenta el rechazo generalizado que ha suscitado este anteproyecto de ley, el ayuntamiento de Villabona quiere expresar lo siguiente:

- 1. El ayuntamiento de Villabona rechaza el anteproyecto de ley orgánica para la protección de los derechos de la mujer embarazada y el concebido, y pide que se anule la tramitación de dicha ley.*
- 2. Remitir este acuerdo de pleno al Gobierno Vasco, al Gobierno de Estado español, y al ministro de Justicia, Alberto Ruiz Gallardón.*
- 3. Este Ayuntamiento se ratifica en su compromiso por los derechos de las mujeres a su autonomía, y concretamente, a la autonomía para la procreación. La decisión de interrupción del embarazo ha de tener como eje y como condición imperante la voluntad de las mujeres.*
- 4. Este Ayuntamiento opta a favor de que las Interrupciones Voluntarias de Embarazos se realicen dentro del sistema público de salud, regulando la objeción de conciencia del personal sanitario y garantizando en los mencionados centros públicos la existencia de los equipos profesionales necesarios para poder hacer efectivo el derecho que tienen las mujeres a Interrumpir Voluntariamente el Embarazo.*
- 5. Reconoce la gran labor realizada por el movimiento feminista y movimientos de mujeres para dar una respuesta unificada a esta reforma, y este Ayuntamiento se adhiere a las movilizaciones en defensa de este derecho.*
- 6. Hacemos un llamamiento a la ciudadanía para que actúe a favor de la autonomía de las mujeres y, concretamente, a favor de este derecho fundamental, así como para que tome parte en las movilizaciones contra la contrarreforma.*

Villabonan, 2014ko urtarrilean

Bildu

PSE-EE

EAJ-PNV

Sometida la propuesta a votación, la misma es aprobada por unanimidad. Asimismo, a solicitud de M^a Luisa Arija, se acuerda remitir el acuerdo adoptado a la prensa.

Para que así conste y surta los efectos oportunos, extendiendo el presente certificado en Villabona a doce de febrero de dos mil catorce.-

Vº Bº

EL ALCALDE,

Fdo.: Galder Azkue Eizmendi



EL SECRETARIO,

Fdo.: Juan Manuel Ruiz Gastañares